| IFZ: | Izena/Sozietatearen izena | Prozedura |
|---|---|---|
| B01238575 | Reinisch España S.L. | Zatikapena ukatzea: PFEZ – Higiezinen errentamenduaren atxikipenak (2008ko 4. hiruhilekoa, 2009ko 1., 2. eta 3. hiruhilekoak) |
| B01238575 | Reinisch España S.L. | Zatikapena ukatzea: PFEZ - Lan Atxikipenak (2009ko 1., 2. eta 3. hiruhilekoak) |
| B01377621 | Cardgirus I&D&I S.L. Unipersonal | Zatikapena ematea: PFEZ - Lan Atxikipenak (2009ko 4. hiruhilekoa) |
| B01457969 | Salomka SLO | Zatikapena ematea: Balio Erantsiaren gaineko Zerga (2009ko ekitaldia) |
| 30555119X | Javier Abad Martínez | Zatikapena ematea: PFEZ – Zatikako ordainketak (2009ko 2. hiruhilekoa) |

| N.I.F. | Nombre/Razón Social | Procedimiento |
|---|---|---|
| B01238575 | Reinisch España S.L. | Denegación fraccionamiento, I.R.P.F.-Retenciones Arrendamiento Inmuebles, 4º trimestre de 2008, 1er, 2º y 3er trimestre de 2009 |
| B01238575 | Reinisch España S.L. | Denegación fraccionamiento, I.R.P.F.-Retenciones de Trabajo, 1er, 2º y 3er trimestre de 2009 |
| B01377621 | Cardgirus I&D&I S.L. Unipersonal | Concesión fraccionamiento, I.R.P.F.-Retenciones de Trabajo, 4º trimestre de 2009 |
| B01457969 | Salomka SLO | Concesión fraccionamiento, Impuesto s/Valor Añadido, anual ejercicio 2009 |
| 30555119X | Javier Abad Martínez | Concesión fraccionamiento, I.R.P.F.-Pagos Fraccionados, 2º trimestre de 2009 |

## GIZARTE POLITIKAREN ETA GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**1840**

**Arabako Lurralde Historikoan 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako laguntzen deialdia, pertsona edo gizatalde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze programak aurrera eraman ditzaten.**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluak, 2010eko martxoaren 2an egindako bilkuran, dirulaguntzen deialdi hau onartu eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen deialdiaren oinarriak:

**Oinarriak**

LEHENA.- DEIALDIAREN HELBURUA.

Hona hemen laguntzen xedea: 20.000 biztanle baino gutxiago duten toki erakundeentzako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 2010ean eman ahal izango dituen itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak arautzea, pertsona edo gizatalde ahulak gizarteratu eta horiei arreta soziala eskaintzeko gizarteratze programak aurrera eraman ditzaten.

Deialdi honetan biltzen diren laguntzak emateko, kontuan izango da deialdian bertan eta indarrean dagoen arautegian ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez.

BIGARRENA.- AURREKONTUA.

2.1. Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak 2010erako duen 01.80204.0400.431.99.28 aurrekontu partidatik (Udalentzako laguntzak. Lan munduan txertatzeko programak) ordainduko dira. Partida 390.000,00 eurokoa izango da.

2.2. Aurrekontuen ekitaldian ematen diren dirulaguntzek, guztira, ez dute gaindituko kontsignatutako zenbatekoa edo aurrekontu aldaketaren ondorio direnak, baldin eta aldaketaren ondorio den zenbateko hori dirulaguntzak banatzen dituen ebazpena onartu aurretik lortzea espero bada.

HIRUGARRENA.- ERAKUNDE ONURADUNAK.

3.1. Arabako Lurralde Historikoko 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalak edo erakundeak izango dira dirulaguntza hauen onuradunak, baldin eta beren jarduerak hemen aipatzen diren helburuekin bat etortzen badira. Horretarako, deialdi honek, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eta Gizarte zerbitzuen alorreko egitekoak zehazten dituen uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuak ezarritako betekizunak eta baldintzak bete beharko dituzte.

3.2. Laguntza deialdi honetatik bazter utziko dira, berariaz, aurreko ekitaldietan jasotako dirulaguntzak epe barruan justifikatu edo itzuli ez dituzten erakundeak.

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICA SOCIAL Y SERVICIOS SOCIALES

### INSTITUTO FORAL DE BIENESTAR SOCIAL

**1840**

**Convocatoria de Ayudas dirigidas a las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava con una población inferior a los 20.000 habitantes para contribuir al desarrollo de Programas de Inclusión dirigidos a la integración y atención social de las personas y colectivos vulnerables.**

El Consejo de Administración del Instituto Foral de Bienestar Social, en sesión celebrada el 2 de marzo de 2010, ha resuelto aprobar y publicar la presente Convocatoria de Ayudas que se regirá por las siguientes

**Bases**

PRIMERA.- OBJETO DE LA CONVOCATORIA.

Constituye el objeto de esta convocatoria, regular las ayudas que podrá otorgar el Instituto Foral de Bienestar Social a las Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava con una población inferior a los 20.000 habitantes, en concepto de subvención a fondo perdido para contribuir al desarrollo de programas de inclusión dirigidos a la integración y atención social de las personas y colectivos vulnerables, durante el ejercicio 2010.

Para la concesión de las ayudas objeto de esta Convocatoria, se tendrá en cuenta el cumplimiento del conjunto de requisitos y condiciones establecidas en esta Convocatoria y en la Normativa vigente.

SEGUNDA.- PRESUPUESTO.

2.1. Las ayudas que se concedan al amparo de la presente convocatoria se imputarán al crédito de la partida presupuestaria 01.80204.0400.431.99.28 “Ayudas Ayuntamientos Programas de Inserción Laboral”, consignada en el presupuesto del Instituto Foral de Bienestar Social para el ejercicio 2010, y dotada con la cantidad de 390.000,00 euros.

2.2. El volumen total de ayudas a conceder dentro del ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte en el caso de que aprueben modificaciones presupuestarias cuya disponibilidad se prevea obtener en cualquier momento anterior a la resolución de la concesión.

TERCERA.- ENTIDADES BENEFICIARIAS.

3.1. Podrán ser beneficiarias de estas subvenciones las Corporaciones o Entidades Locales del Territorio Histórico de Álava con una población inferior a 20.000 habitantes, siempre que reúnan los requisitos y condiciones establecidas en esta Convocatoria y en la Ley 12/2008 de 5 de diciembre sobre Servicios Sociales y el Decreto 155/2001, de 30 de julio, de determinación de funciones en materia de Servicios Sociales.

3.2. Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria de ayudas, quienes hayan incumplido la obligación de justificar o no hayan reintegrado, en los plazos previstos, las subvenciones recibidas en ejercicios anteriores.

LAUGARRENA.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO ARAUBIDEA

Laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Dirulaguntzetarako dagoen diru kopurua proportzionalki banatuko da onuradunen artean.

BOSGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN PROGRAMAK.

Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen jardueraren arloetarako izango dira dirulaguntzak, eta dagokion aurrekontu partidan nahikoa kreditu badago emango dira.

Hain zuzen ere, kontratazio ekintzak biltzen dituzten gizarteratze programak diruz lagundu ahal izango dira; eta ekintza horien artean, lan munduan txertatzeko berariazko arazoak dituztenei behar duten prestakuntza eta laguntza eskaintzeko eta gizarteratzeko bideei ekin diezaioten laguntzea egongo da.

5.1. Bereziki, ekitaldi honetan, Foru Erakundeak lehentasuna emango die honako helburu hauek dituzten programei:

a. Gizartetik baztertuta dauden edota egon daitezkeen pertsonak gizarteratzea, txertatze ibilbideak aurrera eramateko orientazio eta enplegu programak erabilita.

b. Arabako Lurralde Historikoan gauzatzea jarduerak, Gasteizen izan ezik, eta enplegu sorgune berrien inguruan. Hor sartzen dira esploratzeke eta ustiatzeke dauden enpleguak, aurrera ateratzeko tresna berriak abiaraztea behar dutenak, baldin eta jarduera ekonomiko berriak sortzeko bada.

c. Egun ez dauden lan aukerak sortzea lanean txertatzeko aukera gutxien duten sektoreentzat.

d. Arabako Lurralde Historikoko landa herriguneetan enplegu aukera berriak eskaintzea, jendeak bertatik alde egin ez dezan.

e. Gainbehera dauden landa inguruneetan garapen politika sustatzea, toki enplegua sustatuta eta toki erakundeei halako enpleguak sortzen lagunduta.

f. Baztertze egoeran dauden pertsonak lan munduan txertatzea, gizarteratze ibilbidean laguntzeko eta horien jarraipena egiteko programen bidez.

5.2. Diruz lagundutako jarduerak egiteko kontratatzen diren pertsonek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Langabezian egotea eta enplegu bulegoan izena emanda egotea.
- Baztertze egoeran egotea edo baztertuta egoteko arriskua izatea.

5.3. Hauek izango dira programa hauetan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko irizpideak:

- Konpartitu gabeko famili erantzukizunak (aurreko ahaideak zein ondorengoak) dituzten emakumeak.
- Erakundeen laguntzaren menpe dauden pertsonak.
- Iraupen luzeko langabeak (bereziki emakumeak).
- Lehenengo lanaren bila ari diren gazteak (bereziki emakumeak).
- Kualifikazio profesional eskasa duten pertsonak (bereziki emakumeak).

5.4. Deialdi honen babespean toki erakundeek kontratatuko dituzten pertsonak batzorde batek aukeratuko ditu. Batzorde hori honako hauek osatuko dute:

- Dirulaguntza jaso duen toki erakundearen bi ordezkari; horietako batek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte langile izan behar du.
- Gizartegintza Arloko bi teknikari, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ordezkariak.

5.5. Deialdi honen bidez, 2010eko ekitaldian egindako jarduerak baino ezingo dira finantzatu.

CUARTA.- RÉGIMEN DE CONCESIÓN.

El procedimiento de concesión se tramitará en régimen de concurrencia competitiva, procediéndose al prorrateo entre las entidades beneficiarias de la subvención del importe global máximo destinado a las subvenciones.

QUINTA.- PROGRAMAS SUBVENCIONABLES.

La asignación de las subvenciones estará orientada al cumplimiento de los objetivos señalados por la Diputación Foral en la actuación de los Servicios Sociales, así como la disposición de crédito en la partida correspondiente.

En concreto, podrán subvencionarse Programas de Inclusión que incluyan acciones de contratación, dentro de las cuales se podrán incluir acciones formativas, de acompañamiento, así como aquellas necesarias para el abordaje de los itinerarios de inserción dirigidos a personas que presentan especiales dificultades para la inserción laboral.

5.1. De forma particular, el Instituto Foral dará prioridad en el presente ejercicio a la subvención de aquellos programas que se dirijan a:

a. Facilitar la inclusión social de personas que estén o puedan encontrarse en riesgo de Exclusión Social, mediante el impulso de las acciones necesarias para el desarrollo de sus itinerarios de inclusión que incluyan programas de orientación y acceso al empleo como parte de ese itinerario.

b. Desarrollar actuaciones en el Territorio Histórico de Álava, a excepción del municipio de Vitoria-Gasteiz, en torno a los nuevos yacimientos de empleo, es decir, empleos que están por explorar y explotar y que necesitan de la puesta en marcha de nuevos instrumentos para desarrollarlos, con objetivos de creación de nuevas actividades económicas.

c Proporcionar alternativas laborales diferentes a las existentes, dirigidas a sectores de población con menores posibilidades de incorporación laboral.

d. Evitar el despoblamiento de los núcleos rurales del Territorio Histórico de Álava, aportando nuevas posibilidades de empleo.

e. Potenciar una política de desarrollo local en las zonas rurales en declive, favoreciendo el empleo local y apoyando a las entidades locales en la generación de dicho empleo.

f. Apoyar la incorporación laboral de las personas en situación de exclusión mediante programas de acompañamiento y seguimiento de sus itinerarios de inclusión.

5.2. Las personas que sean contratadas para la realización de las actividades para las que se otorgue la subvención, deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Ser personas desempleadas e inscritas en las oficinas de empleo.
- Estar en riesgo o situación de exclusión.

5.3. Los criterios preferentes para la selección de las personas participantes en estos programas, serán los siguientes:

- Mujeres con responsabilidades familiares no compartidas (ascendientes y descendientes).
- Personas dependientes de ayudas económicas institucionales.
- Personas desempleadas de larga duración, (especialmente mujeres).
- Jóvenes en busca del primer empleo, (especialmente mujeres).
- Personas con bajo nivel de cualificación profesional, (especialmente mujeres).

5.4. La selección de las personas a contratar por las respectivas Entidades Locales al amparo de la presente Convocatoria, será efectuada por una Comisión integrada por los siguientes miembros:

- Dos personas representantes de la Entidad Local a quien se concede la subvención, una de las cuales deberá ser trabajadora social del Servicio Social de Base Municipal.
- Dos personas técnicas del Area de Intervención Social, representantes del Instituto Foral de Bienestar Social.

5.5. Únicamente podrán ser objeto de financiación por esta convocatoria, aquellas actividades que se realicen durante el ejercicio 2010.

SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZEN BATERAKOTASUNA.

6.1. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ezingo da izan, inolaz ere, erakunde onuradunak egingo duen programaren kostua baino handiagoa, dela bera bakarrik, dela beste erakunde publiko zein pribatuek emandako dirulaguntzei edo beste diru sarrera batzuei batuta.

6.2. Era berean, deialdi honetako dirulaguntzaz gain beste erakunde batzuei edo Arabako Foru Aldundiaren beste sail batzuei egitasmo bererako dirulaguntzak eskatu dizkieten edo eskatzeko asmoa duten entitateek hala egin dutela jakinarazi beharko dute berariaz eskaeran. Era berean, laguntza hauek jasotzen dituztenek aurrerago beste laguntzaren bat jasotzen badute beste administrazioetatik edo Aldundiaren beste sailetatik jarduera berari dagokionez, beste laguntza horien berri eman beharko dute.

6.3. Edonola ere, erakunde eskatzaileak programak sortutako gastuetan lagundu beharko du, gutxienez kostu osoaren ehuneko 10ean.

ZAZPIGARRENA.- ESKAERAK AURKEZTEA.

7.1. Deialdi honetako dirulaguntzetarako eskaerak betetzeko, araututako eredua erabili behar da. Eredu hori Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean dago eskuragarri, helbide honetan: Diputazio kalea, 13.1. Vitoria-Gasteiz.

Deialdi honi buruzko argibideak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean eskuratu ahal izango dira, honako bide hauek erabiliaz:

Telefono zk.: 945 15 10 15

Faxa: 945 12 10 74

Edo posta elektronikoko helbide honetan: mdomingo@alava.net

7.2. Eskaerarekin batera, oinarri hauetan eskatutako agiriak ere aurkeztu behar izango dira, aurreko paragrafoan adierazitako lekuan. Hala ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen –4/1999 Legeak emandako idazkeran– 38. artikuluak ezarritako moduan ere aurkez daitezke. Eskaerekin batera, dirulaguntzetarako eskatzen diren jatorrizko agiriak aurkeztu behar dira, dokumentazioa aurkezten denean.

ZORTZIGARRENA- AURKEZTEKO EPEA.

8.1. Laguntza eskaerak aurkezteko 30 egun egongo dira, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak aurkezteko epealdiko azken eguna foru administrazio honentzat laneguna ez bada, epealdia hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

8.2. Salbuespen gisa, baldin eta aurrekontuetan horretarako nahikoa kreditu badago, 8.1 paragrafoak adierazitako epetik kanpo ere onartuko dira eskaerak, baina, inolaz ere ez, 2010eko azaroaren 30a baino beranduago. Horrelakoetan, eskatutako laguntzen beharrak ezarritako epearen azken eguna igaro ondoren sortu direla egiaztatu beharko da, eta eskaerak indarrean dagoen arautegiaren arabera justifikatzeko arrazoi frogatuak daudela.

BEDERATZIGARRENA. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

- Zazpigarren oinarrian aipatzen den eskaera orria, erakundearen ordezkariak edo erakundean horretarako ahalmena duenak sinatua.

Eskaera horretan ondoko datuak adierazi behar dira, besteak beste:

- Erakundearen eta erakundea ordezkatzen duen kargu publikoaren datuak.

- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu behar du erakunde eskatzaileak.

- Eskaera orria sinatu duenaren ordezkatzeko ahalmenari buruzko egiaztagiria eta eskaerari baimena ematen dion organo eskudunaren ziurtagiria.

SEXTA.- CONCURRENCIA DE SUBVENCIONES.

6.1. El importe de las subvenciones concedidas en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas de otras entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales u otros ingresos, supere el costo del programa a desarrollar por la entidad beneficiaria.

6.2. Asimismo las entidades que, además de acceder a la presente convocatoria, hayan solicitado o tengan previsto solicitar, para la misma finalidad subvenciones o ayudas a otras entidades, organismos o a otros Departamentos de la Diputación Foral de Álava están obligadas a hacerlo constar expresamente en la solicitud. De la misma forma, quienes se beneficien de estas ayudas, deberán informar sobre aquellas ayudas concedidas por otros Departamentos o por otras Administraciones con posterioridad a la concesión de la ayuda por esta Administración Foral, y en relación con la misma actuación.

6.3. En cualquier caso, la entidad solicitante deberá contribuir en los gastos generados por el programa, al menos en un 10 por ciento del costo total del mismo.

SÉPTIMA.- PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES.

7.1. Las solicitudes para concurrir a las ayudas objeto de esta Convocatoria, se formalizarán en el correspondiente modelo de instancia normalizada que se facilitará y será entregada en el Instituto Foral de Bienestar Social, C/ Diputación, nº13-1º, de la localidad de Vitoria-Gasteiz.

Cualquier información sobre esta convocatoria podrá ser obtenida en el Instituto Foral de Bienestar Social a través de los siguientes medios:

Teléfono: 945 15 10 15

Fax: 945 12 10 74

O en la siguiente dirección de correo electrónico: mdomingo@alava.net

7.2. Las solicitudes, las cuales deberán ir acompañadas de la documentación requerida en las presentes Bases, serán presentadas en el lugar señalado en el apartado anterior. Estas también podrán presentarse en la forma establecida en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su redacción dada por Ley 4/1999. A las mismas se acompañará, en el momento de su presentación, original de la documentación exigida.

OCTAVA.- PLAZO DE PRESENTACIÓN.

8.1. El plazo para la presentación de solicitudes de las ayudas será de 30 días naturales contados a partir del día siguiente a la publicación de la presente Convocatoria en el BOTHA. En el supuesto de que la fecha de finalización del plazo concedido coincida con un día no laborable para esta Administración Foral, dicho plazo se ampliará hasta el primer día hábil siguiente.

8.2. Con carácter excepcional, una vez resueltas las solicitudes recibidas en plazo y siempre que exista crédito presupuestario disponible al efecto, podrán admitirse a trámite solicitudes fuera del plazo indicado en el apartado 8.1, siempre que se presenten antes del 30 de noviembre de 2010. En este caso se deberá acreditar que las necesidades de las ayudas han surgido con posterioridad al plazo de presentación ordinario, así como que existen probadas razones que las justifiquen, de acuerdo con la normativa vigente.

NOVENA. DOCUMENTOS A APORTAR.

- Instancia-Solicitud, a la que se refiere la Base Séptima, suscrita por quien tenga la representación de la Entidad o poder suficiente para ello.

En dicha solicitud se harán constar, entre otros datos, los siguientes:

- Datos referidos a la entidad y cargo público que la representa.

- Compromiso de colaboración mediante el que la Entidad solicitante se compromete a colaborar con el Instituto Foral de Bienestar Social.

- Acreditación del poder de representación de quien firma la instancia y certificación del órgano competente autorizando la solicitud.

- Gastuen eta sarreren aurreikuspen xehekatua, eta horiek finantzatzeko dauden baliabideak.

- Eskatutako, aurreikusitako edo jasotako beste dirulaguntza batzuen zerrenda.

- Programaren memoria teknikoa. Gutxienez, honako hauek adieraziko dira bertan:

- Egingo diren ekintzen edota jardueren izen eta deskribapen zehatza. Familia zamak dituzten pertsonek programa horietan parte har dezaten egingo diren ekintzak ere sartuko dira.

- Proposatutako programa edota jarduera bakoitzean parte hartuko duten pertsonen gutxi gorabeherako kopurua, eta haien sexuari eta adinari buruzko datuak.

- Kontratazio motak eta horien iraupena, baita lanaldiena ere, pertsona bakoitzaren kontratazioaren kostu osoa zehaztuz.

- Lan munduan txertatzeko laguntzaileak izatea (laguntza programak, erreferentzia izango diren pertsonak –hezitzaileak, obretako zuzendariak, ikuskatze lanak egingo dituztenak- eta abar.).

- Lanean sartu aurretiko prestakuntza prozesuak zehaztea.

- Lana edo zerbitzua gutxi gorabehera noiz hasi eta noiz bukatuko den.

- Lanean txertatzeko programetan, adierazi ea nola egingo den parte hartuko duten pertsonen jarraipena; era berean, sei hilabeteren buruan GOFEn aurkeztuko den txostena egin behar da.

HAMARGARRENA.- DIRULAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK.

Hona hemen dirulaguntzak emateko erabiliko diren irizpideak:

a) Lanean txertatzeko programaren planteamendua: zein eduki duen eta norentzat den zehaztea. Gehienez, 50 puntu.

a.1) Programaren edukia eta programak era horretako taldeak enplegatu ditzaketen merkatuko sektoreekin duen zerikusia. gehienez, 25 puntu

• Lanean Txertatzeko Programaren edukiak enplegu sorgune berrien inguruko proposamenak garatzea (edo arakatzeko eta ustiatzeke dauden enpleguen ingurukoak), bai eta lanean txertatzeko aukera gutxien duten populazio sektoreei zuzendurik dauden eta egun dauden proposamenetatik aldentzen diren lan proposamenenak ere. 25 puntu.

• Programak ez du sektore hauetarako proposamenik egiten: 0 puntu.

a.2.) Baztertze egoeran dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten pertsonak aukeratzeko lehentasuna. Gehienez, 25 puntu.

• Hautatutako pertsona guztiak baztertze egoeran dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten taldeetakoak dira: 25 puntu.

• Hautatutako pertsona guztiak, edo bat ere ez, ez dira baztertze egoeran dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten taldeetakoak: 0 puntu.

b) Aurkeztutako programaren kalitatea: programak azaldutako ekintzak zenbateraino egokitzen diren dirulaguntza jaso lezakeen taldearen egoera pertsonalera eta sozialera, baita lanean txertatzeko beharretara ere. Gehienez, 40 puntu.

b.1) Erreferentzia izango den pertsonarik dagoen edo ez (hezitzaileak, obretako zuzendariak, eta abar). Pertsona horiek arduratuko dira proiektuaren koordinazioaz eta ikuskaritzaz. Gehienez, 10 puntu.

• Programak zehaztu egiten ditu erreferentzia izango diren pertsonak: 10 puntu.

• Programak ez du zehazten inolako erreferentzia pertsonarik: 0 puntu.

b.2.) Kontratatu baino lehen edo kontratatuta dauden bitartean berariazko prestakuntza emango zaien edo ez. Prestakuntza hori ezingo da izan beste erakunde, udal edo kuadrilla batek eskaintzen duena bezalakoa. Gehienez, 10 puntu.

• Programak prestakuntza ekintzak jasotzen ditu: 10 puntu.

• Programak ez du prestakuntza ekintzarik jasotzen: 0 puntu.

b.3.) Lanean txertatzeko laguntza programarik dagoen edo ez. Gehienez, 10 puntu.

- Previsión de gastos e ingresos, desglosado de los mismos y los recursos con los que se cuenta para su financiación.

- Relación de otras subvenciones demandadas, previstas o recibidas.

- Memoria técnica del programa que recogerá, al menos, los siguientes aspectos:

- Denominación y descripción concreta de las acciones y/o actividades que se van a desarrollar, incluyendo aquéllas necesarias que faciliten la participación de personas con cargas familiares en los citados programas.

- Número de personas participantes en cada uno de los programas y/o actividades propuestas, incluyendo información relativa al sexo y la edad.

- Modalidad y duración de las contrataciones y de las jornadas laborales, indicando el coste total de las contrataciones por persona.

- Existencia de figuras de apoyo a la inserción laboral, (programas de acompañamiento, figuras de referencia,- educadoras y educadores, jefaturas de obra, personas que realicen tareas de supervisión, etc.-).

- Determinación de procesos formativos previos a la incorporación laboral.

- Fechas previstas para el comienzo y terminación de la obra o servicio.

- En los programas de incorporación laboral, descripción de cómo se va a realizar el seguimiento posterior de las personas participantes, así como la elaboración el informe que se remitirá al IFBS a los seis meses.

DÉCIMA.- CRITERIOS DE CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN.

Como criterios de valoración para la concesión de las ayudas se tendrán en cuenta:

a) Planteamiento del Programa de Inclusión: concreción del contenido y colectivo destinatario. Hasta 50 puntos.

a.1.) El contenido del Programa y su relación con los sectores de mercado potenciales de empleabilidad para estos colectivos. Hasta 25 puntos

• El contenido del Programa de Inserción desarrolla propuestas relacionadas con nuevos yacimientos de empleo, empleos que están por explorar y explotar, así como de propuestas laborales diferentes a las existentes, alternativa dirigida a sectores de población con menores posibilidades de incorporación laboral. 25 puntos.

• El contenido del Programa no desarrolla propuestas en estos sectores: 0 puntos.

a.2.) Prioridad de selección de personas pertenecientes a colectivos en riesgo o situación de exclusión. Hasta 25 puntos.

• La totalidad de personas seleccionadas pertenece a colectivos en riesgo o situación de exclusión: 25 puntos.

• No todas o ninguna de las personas seleccionadas pertenece a colectivos en riesgo o situación de exclusión: 0 puntos.

b) Calidad del Programa presentado: adecuación de las acciones previstas en él a la situación personal y social del colectivo potencialmente destinatario, así como a sus necesidades para la inclusión laboral. Hasta 40 puntos.

b.1.) Existencia de figuras de referencia, (educadoras y educadores, jefaturas de obra, etc...), que lleven a cabo una labor de coordinación y supervisión del proyecto. Hasta 10 puntos.

• El Programa concreta la/s figura/s de referencia: 10 puntos.

• El Programa no concreta figura de referencia alguna: 0 puntos.

b.2.) Impartición de formación específica previa o durante la contratación, siempre y cuando, dicha formación no se esté ofertando por cualquier otra Entidad, en el Municipio o Cuadrilla. Hasta 10 puntos.

• El Programa plantea acciones formativas: 10 puntos.

• El Programa no plantea acciones formativas: 0 puntos.

b.3.) Existencia de programa de acompañamiento a la inserción laboral. Hasta 10 puntos.

• Programaren helburu diren pertsonei “laguntzeko” formula zehazten du programak: 10 puntu.

• Progamak ez du “laguntzeko” formula zehazten: 0 puntu.

b.4.) Programan bizitza familiar eta laborala uztartzea errazten duten neurri zehatzak sartzea. Gehienez, 10 puntu.

• Uztartzeko neurriak aipatu edota jasotzen ditu programak, baldin eta premiazkoak badira, parte hartzaileei laguntzeko: 10 puntu.

• Programak ez du ezer aipatzen uztartzeko neurriak inplementatzeko premiaz: 0 puntu.

c) Eskatutako diru baliabideak programan proposatutako helburuetara egokitzen diren ala ez. Gehienez, 10 puntu.

• Egokitzapen handia: 10 puntu.

• Egokitzapen ertaina: 5 puntu.

• Egokitzapen eskasa: 0 puntu.

HAMAIKAGARRENA.- DIRULAGUNTZA UKATZEKO ARRAZOIAK

Hona dirulaguntza ukatzeko arrazoiak:

a) Deialdi honen edozein oinarri ez betetzea.

b) Oinarrietako edozeinetan eskatzen den dokumentazio guztia edo zati bat ez aurkeztea.

c) Programak 9. oinarri arauaren araberako puntuetatik, gutxienez, 50 ez lortzea.

d) Diruz lagundu ezin daitekeen programa bat izatea, bosgarren oinarri arauaren arabera.

HAMABIGARRENA.- DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KONTZEPTUAK ETA GEHIENEKO DIRULAGUNTZAK.

Ondoko kontzeptuetan, aurreikusitako aurrekontuaren ehuneko 90 diruz lagun daiteke gehienez:

- Programaren helburu diren pertsonak kontratatzeko gastuak, eta taldeari laguntzen diharduen talde arduraduna kontratatzeko gastuak.

- Programara bildutako prestakuntza gastuak.

- Programa garatzeko beharrezko baliabide materialak erosteko edo alokatzeko gastuak.

- Programan xedatutako lanak egiteko lekura kontratatutako pertsonak garraiatzeko gastuak.

- Programa garatzeko eta berorren helburuak erdiesteko beharrezko diren bestelako gastuak

HAMAHIRUGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Hamargarren oinarri arauetako irizpideak ezartzetik lortutako puntu guztiak batuz gero, lortuko den kopuruari dirulaguntzetarako gehieneko ehunekoa esleituko zaio, ondoko taula honen arabera:

| PUNTUAZIOA | DIRULAGUNTZAREN EHUNEKOA GEHIENEZ ERE |
|---|---|
| 50 puntu baino gutxiago | ehuneko 0 |
| 50-60 puntu | ehuneko 50 |
| 61-70 puntu | ehuneko 60 |
| 71-80 puntu | ehuneko 70 |
| 81-90 puntu | ehuneko 80 |
| 91-100 puntu | ehuneko 90 |

Ehuneko horiek zehaztuko dute dirulaguntza zenbat izango den, hamabigarren oinarria ezarri eta gero lortutako kopuruetan, gehienez ere diruz lagundu daitezkeenetan, ezarri ondoren.

Eskaera kopurua eta eman beharreko dirulaguntzak direla-eta dirulaguntzetarako ezarritako kopuruak gutxitu beharko balira, aurreko eskalan adierazitako ehuneko guztiak neurri berean gutxituko lirateke.

HAMALAUGARRENA.- LANKIDETZARAKO KONPROMISOA

14.1. Deialdi honetako laguntzak jasotzeak zera dakar, erakunde onuradunak foru erakundearekin lankidetzan aritu beharra.

• El Programa concreta la fórmula de “acompañamiento” de las personas destinatarias: 10 puntos.

• El Programa no contempla fórmula de “acompañamiento”: 0 puntos.

b.4.) Introducción en el Programa de medidas concretas que favorezcan la Conciliación familiar-laboral. Hasta 10 puntos.

• El Programa menciona y/o incluye medidas de conciliación en la medida que éstas sean necesarias, atendiendo a las personas participantes: 10 puntos.

• El Programa no realiza mención alguna de la necesidad de implementar medidas de conciliación: 0 puntos.

c) La adecuación de los recursos financieros solicitados a los objetivos que se proponen en el Programa. Hasta 10 puntos.

• Adecuación alta: 10 puntos.

• Adecuación media: 5 puntos.

• Adecuación baja: 0 puntos.

UNDÉCIMA.- MOTIVOS DE DENEGACIÓN.

Serán motivos de denegación de la subvención los siguientes:

a) El incumplimiento de cualquiera de las bases de la presente convocatoria.

b) La no aportación de toda o parte de documentación exigida en cualquiera de las bases.

c) Que la valoración del Programa no alcance una puntuación de al menos 50 puntos, conforme a la base Décima de la presente Convocatoria.

d) No ser un Programa subvencionable de acuerdo a la Base Quinta.

DUODÉCIMA.- CONCEPTOS Y PRESUPUESTOS MÁXIMOS SUBVENCIONABLES.

Se subvencionará hasta el 90 por ciento del presupuesto previsto de los siguientes conceptos:

- Los gastos referidos a la contratación de las personas destinatarias del Programa, así como de la persona encargada de grupo y/o que realice las tareas referidas al acompañamiento del mismo.

- Los gastos referidos a la formación que se incluya en el Programa.

- Los gastos relacionados con la compra o alquiler de los recursos materiales precisos para el desarrollo del Programa.

- Los gastos relacionados con el desplazamiento o traslado de las personas contratadas al lugar donde realicen los trabajos previstos en el Programa.

- Otros gastos que se consideren necesarios para el desarrollo del Programa y cumplimiento de los objetivos previstos en el mismo.

DÉCIMOTERCERA.- FIJACIÓN DE LA CUANTÍA DE LA SUBVENCIÓN.

La suma de puntos obtenida de la aplicación de los criterios de la Base Décima arrojará una cantidad de puntos a la que se asociará un porcentaje máximo de subvención de acuerdo al cuadro siguiente:

| NÚMERO DE PUNTOS | TANTO POR CIENTO MÁXIMO DE SUBVENCIÓN |
|---|---|
| Menos de 50 puntos | 0 por ciento |
| Entre 50 y 60 puntos | 50 por ciento |
| Entre 61 y 70 puntos | 60 por ciento |
| Entre 71 y 80 puntos | 70 por ciento |
| Entre 81 y 90 puntos | 80 por ciento |
| Entre 91 y 100 puntos | 90 por ciento |

Dichos porcentajes aplicados sobre los presupuestos máximos subvencionables surgidos de la aplicación de la base duodécima, determinarán la cuantía final de la subvención.

